

LAINO PINPIRINA : USTIAPEN PEDAGOGIKOA

JUSTIFIKAZIO PEDAGOGIKOA

1. Bizi garen jendartean, bazterkeria maila anitzetan gertatzen da. Baina dudarik gabe, bazterkeriarik krudelenetarik da berdinen artean ematen dena. Zergatik ? Norbera bezalako batek egiten duelako.

Istorio honetan, jazarpen (edo bullying) kasu bat agertzen zaigu, animalien mozorroen azpian. Azken finean, helburua baztertzeko zein min ematen duen ohartaraztea da. Gure istorioan, eguneroko bizitzan bezala, bazterkeria ez da gertatzen zerbaiten ondorio gisa, desberdina dena ez onartzeagatik baizik.

Ipuin honetan zuria izatea aski arrazoia da bertzeak hartaz trufatzeko (zenbat aldiz ez da ber gauza gertatzen gure gizartean, baina alderantziz, alegia, aski arrazoia dela bertzea zuria ez izatea hartaz trufatzeko ?). Eta jazarpen kasu guzietan gertatzen den bezala, *bertzeak* gauza txarrak baino ez ditu, desberdina izatea aski da onargarria ez izateko, *bertzeak* egin edo erraten duen oro baztertzeko aitzakia da.

Ipuin honen helburua bazterkeriaz gogoetatzeko parada da. Istoria animalien mundura eramaten dugunez, gai honi buruz solas egiteko behar dugun distantzia hartzeko aukera ematen digu.

Azken finean, hemen proposatzen duguna prebentzioa egitea da. Ikasleei galde batzuk luzatu gai honen inguruan gogoetak egin ditzaten eta beren artean horrelako zerbait gertatuz gero, irizpide sendo bat izan dezaten.

Zergatik baztertzen dute pinpirin zuria ?

Gure artean ere horrelakorik gertatzen dea ? Zergatik ?

Desberdintasunak txarrak dira ala aberasgarriak ?

Ez ote gara denak desberdinak eta aldi berean denak berdinak ?

Nor da baztertzalea, soilik baztertzen duena ala norbait baztertua izan ez dadin deus egiten ez dutenek ere erantzukizuna badute ?

Zer egin dezake baztertua denak egoera horretatik ateratzeko ?

Galde horiei ihardetsi ahal izateko, pentsatu behar da. Gure gogoeta proposamenak ibilbide hau segitzen du :

GOGOETATZEKO IBILBIDEA

1. **DENAK GARA DESBERDINAK** : denek dugu bertzeengandik bereizten gaituen zer bait. Hori txarra izan beharrean, aberasgarria da. 1. FITXA
2. **DENAK GARA BERDINAK** : Desberdinak izanik ere, denak pertsonak gara eta hainbat aldetatik franko antzekoak gara. Antzekotasunak bertzeak gu bezalakoak direla onartzen lagunduko gaitu. 2. FITXA
3. **NEHOR EZ DA PERFEKTUA**. Ni ez naiz perfektua, gu ez gara perfektuak, gure ondokoak ere ez dira perfektuak. Hori ikasiz gero, dugun perfekzio eza eta gure ingurukoek dutena hobeki onartzeko bidean izanen gara. 3. FITXA
3. **ZER EGITEN DUT ONGI** ? Zein ezaugarri dut gustukoa ? Zein ezaugarriekin sentitzen garen gustura aurkitzea garrantzitsua da, norbera bere buruarekin gustura egon ahal izateko. Perfektuak ez izanik ere, gauza anitz ongi egiten dugu. 4. FITXA
4. **ZEIN DIRA BERTZEEN EZAUGARRI ONAK** ? Denek, den-denek, ditugu ezaugarri onak. Idatz ditzagun orri batean. 5. FITXA
5. **IPUINEI, BUKAERA DESBERDINAK AURKITU**. Ipuina bertze modu batez buka daiteke. Zein modutan ? 6. FITXA
6. **ANTZEZPENA : BERTZEEN TOKIAN JARRI**
Bertzeen lekuan jartzea on izan daiteke bertzeak nola sentitzen diren ulertu ahal izateko. Zergatik jotatzen dute baztertzailleek egiten duen moduan ? Zer egiten ahal du baztertua denak ? Eta begira daudenek ? 7. FITXA
7. **ESKER ONEKOAK IZAN**. Kexatzeko eta gauzak edo bertzeak kritikatzeko joera dugu maiz. Baina zein zorte onekoak garen ohartuko bagina, kexatu eta kritikatzeko partez, esker onekoak izaten ikasiko genuke. 8. FITXA

1. FITXA : DENAK GARA DESBERDINAK

HELBURUAK :

Den-denak desberdinak garela probatzea.

Norbera eta bere kide eta lagunak arteko diferentziez ohartzea.

Diferentziek ez gaituzte zertan urrunduko behar, aberastu baizik.

KONPETENTZIAK :

- Elkarriketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.
- Norberaren jende ingurua ezagutu.

ANTOLAKETA :

Ariketa hau bakarka eginen dute hasieran. Gero talde ttipitan trukatu eta bilduko dute bakoitzak bere aldetik idatzi duena : zertan gara desberdinak ? Bukatzeko, gela osoak idatzizko bilduma eginen du. Irakasleak arbelean zerrendatuko ditu ikasleek aipatzen dituzten ezaugarriak : ezaugarri fisikoak (ilea, neurria, pisua, azalaren kolorea, begien kolorea...), zaletasunak, gustuko animaliak, etab.

AZALPENA :

Ikasleek orri batean beren ezaugarriak idatziko dituzte : ilea, neurria, pisua, haurrideen kopurua, etxearen ezaugarriak, etxe-abereak, burasoak (aita eta ama, bietariko batekin bakarrik, adoptatua...), zaletasunak (kirolak, eskulanak, zinema...), maniak, panpinak...

EZAUGARRI FISIKOAK : ilea, neurria, pisua, adina...

FAMILIA : haurrideen kopurua, burasoak (aita eta ama, bietariko batekin bakarrik, adoptatua...)

INGURUA : etxearen ezaugarriak

ZALETASUNAK ETA ABAR : kirolak, eskulanak, zinema..., maniak, panpinak...

Bakoitzak bere ezaugarriak idatzi ondoren, binaka elkartu eta bertze orri batean idatziko dute ikasle horiek zertan ez diren berdinak.

Ondoren, gauza bera egin launaka eta bukatzeko gelakide guztien artean desberdintasunen zerrenda egin.

Ikasleei ohartarazi pertsonak franko desberdinak izaten ahal garela baina horrek ez duela erran nahi gu bezalakoa ez dena baztertzeko eskubidea dugunik. Izan ere, horrela balitz, edonor baztertzeko eskubidea dugula erran nahiko luke (denak ezberdinak baikara) baina, baita edonork gu baztertzeko eskubidea duela (nehor ez delako ni bezalakoa).

2. FITXA : DENAK GARA BERDINAK

HELBURUAK :

Desberdinak garen arren, hainbat arlotan franko antzekoak garela ikusi.

Gure antzekotasunak aztertu.

Gugandik franko desberdinak direnek ere gurekin dituzten antzekotasunak aurkitu.

KONPETENTZIAK :

- Elkarriketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.
- Jende taldeen ezagutza sustatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

Zertan gara bertzeak bezalakoak ?

Nor dira gugandik franko desberdinak ?

Talde ttipitan aldizkarietatik hartu “arraza” desberdinetako pertsonen irudiak aztertu.

Gugandik franko desberdinak badira ere, zertan zaizkigu berdintsu ?

Kanpo ezaugarriez gain, gurekin dituzketen antzekotasunak bilatuko ditugu :

gu bezala etxe batean biziko dira, maite duten pertsoez inguratuak, egunero jateko zerbitu ukanen dute, eskolara joanen dira...

Talde ttipitan aztertuko dute gai hau eta ondotik, talde handian antzekotasunen zerrenda egingen dute.

Bigarren ariketa honen bidez, denak desberdinak izan arren, denak franko antzekoak garela ikusiko dugu. Denak hain berdintsuak bagara, zergatik baztertzten ditugu gure antzekoak direnak ? Eta horrela egiten badugu, ez ote zaigu guri ere berdin gertatzen ahal ?

3. FITXA : NEHOR EZ DA PERFEKTUA

HELBURUAK :

- Nehor ez dela perfektua ohartu.
- Norberaren perfekzio ezari ohartu.
- Norberaren akatsak eta hurkoarenak barkatzen ikasi.

KONPETENTZIAK :

- Elkarrizketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

ZER EZ DUT ONGI EGITEN ? Galde horri erantzun beharko dio ikasle bakoitzak. Beraz, lehendabiziko ariketa norberak zer ez duen ongi egiten aztertzea izanen da.

Ondoren talde ttipitan jarriko dira ikasleak eta trebetasun zirkuitua (kirol gunean) aurkeztuko zaie (saltoa, oreka, esku trebetasuna, sormena...) duen zirkuitu bat. Talde bakoitza saiatuko da ahal bezain ongi egiten baina proba bukatzean galde honi erantzun beharko diote : Zer ez dugu ongi egin ?

Gelara itzuliko dira eta han aztertuko dute talde bakoitzak zer ez duen ongi egin.

Honen inguruan, elkarrizketa bat sustatuko da, ondorio honetara heltzeko xedearekin : denek dugu ongi egiten ez dugun zerbait. Zergatik kritikatzten ditugu bertzeak, batzuetan modu zakarrean, zerbait ongi egiten ez dutenean ?

4. FITXA : ZEIN EZAUGARRI DUT GUSTUKOA ? ZER EGITEN DUT ONGI ?

HELBURUAK :

- Autoestimua handitu.
- Gure burua hobeki ezagutu.
- Elkarreragina sustatu.

KONPETENTZIAK :

- Elkarrizketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

Zein dira nire ezaugarrietatik gehien gustatzen zaizkidanak ? Ariketa honekin norberak bere buruarekin gustura sentitzea bilatzen dugu. Zein ezaugarriekin sentitzen garen gustura deskubritzea garrantzitsua da, norbera bere buruarekin gustura egon ahal izateko.

Bakarka, hasieran, norberak zerrendatuko ditu bere gustuko ezaugarriak. Lehendabiziko ariketako zerrenda balia daiteke, hortik gustukoak dituzten ezaugarriak aurkitzeko.

EZAUGARRI FISIKOAK : ilea, neurria, pisua, urteak...

FAMILIA : haurride kopurua, burasoak (aita eta ama, bietarik batekin bakarrik, adoptatua...), maskotak (zakur, gatu,...)

INGURUA : etxearen ezaugarriak

ZALETASUNAK ETA ABAR : kirolak, eskulanak, zinema..., maniak, panpinak...

Ariketa hau bakarka egingen da eta taldeak ongi onartzen badu, denen artean ezarriko da ikasleek idatzia.

Kasu eman, hala ere, batzuk gaizki sendi baitaitezke bertzeen aitzinean beren gustuko ezaugarriak azaltzerakoan. Edo gerta daiteke, autoestimua apala duen ikasle batek, gustuko ezaugarriarik ez aurkitzea. Irakaslea adi egon beharko da ikaslearen laguntzeko, horrelako kasu bat gertatuz gero. Hala izanez gero, bakarkako ariketa baino ez litzateke, edo bakoitzak izenik agertu gabe paper puska batean idatzia duena kutxa batean ezar daiteke, nahasi eta arbelean azaldu. Dena den, ikasleak konfiantzan izan daitezen, haiekin hitzartuko da nola egin.

ALDAERA.

ONGI EGIN GAUZEN TRENA.

Ariketa bertze modu batean ere antola daiteke : ZER DA NIK ONGI EGITEN DUDANA ?

Denek badugu ongi egiten dugun zerbait. Kartoizko fitxa ttipi bedera banatuko zaie ikasleei. Bakoitzak ongi egiten duen zerbait idatziko du hartan. Gero fitxak irakaslearen mahai gainean utziko dira eta, nahasi ondoren, fitxa guziak kolatuko ditugu, tren baten moduan. Bertze aldetik, ikasle bakoitzari treneko bagoiak margoturik dituen orri bat emanen zaie. Ikasleek aztertuko dituzte paretan kolatu bagoiak eta horietarik zenbatekin identifikatzen den pentsatuko du. Jarraian, ikasle bakoitzak, bere orriko bagoietan zein trebetasunekin identifikatzen den idatziko du.

Hain segur, batzuek uste baino gauza gehiago ongi egiten duela, ohartuko da. Alabaina, anitzetan gosta zaigu ongi egiten dugunaz onartzea, baina bertze batzuek ongi egiten dutela aitortzen dutenean, guk ere horretan ongi moldatzen garela aitortzen dugu.

5. FITXA : ZEIN DIRA BERTZEEN EZAUGARRI ONAK ?

HELBURUAK :

- Autoestimua azkartu.
- Gure burua hobeki ezagutu.
- Pentsamendu positiboa sustatu.

KONPETENTZIAK :

- Elkarrizketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

Denek, den-denek, ditugu ezaugarri onak. Zein dira nire kideek dituztenak ? Ikaskideen zerrenda harturik, bakoitzari ezaugarri positibo bat bederen bilatuko diogu. Denek, maite ditugun kideek eta maite ez ditugunek, ezaugarri positiboak dituzte.

Ikasle guziei, gainerateko ikasleen zerrenda eman (taula batean ezarririk), eta bakoitzari ezaugarri positibo bat bederen idatzi behar diotela azaldu. Haien laguntzeko, adjektibo positiboen zerrenda ematen ahal zaie : abila, aitzindaria, alaia, argia, asaldakaitza, atsegina, ausarta, azkarra, baketsua, bihotz onekoa, irrigarria, ernea, hitzekoa, esker onekoa, eskuzabala, indartsua, irekia, isila, kirolzalea, kantaria, konfiantzazkoa, lagunkina, langilea, lasaia, lerdena, liraina, maitagarria, malgua, polita, positiboa, saiatua, segurra, sentibera, sutsua, trebea, umoretsua, zentzuduna, zintzoa...

IKASKIDEAREN IZENA	EZAUGARRI POSITIBOA
1. NI:	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
10.	
11.	
12.	
13.	
14.	
15.	
16.	
17.	
18.	
19.	
21.	

Zer egin adjektibo horiez ? Urtebetetze bakoitzean opari kutxa berezi bat prestatu eta urteak bete dituenari eman, barnean denek idatziriko ezaugarri positiboez beterik. Horrela ikasle guziek gutienez opari berdina izanen dute ; ezaugarri positiboz beteriko opari kutxa.

6. FITXA : IPUINEI, BUKAERA DESBERDINAK AURKITU

HELBURUAK :

- Sormena handitu.
- Aldizkako pentsamendua sustatu.
- Pentsamendu positiboa sustatu.

KONPETENTZIAK :

- Elkarrizketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

Irakurri ipuinak hasiera eta bukaera badu. Baina bertze bukaera bat ere ukan dezake. Bukaera desberdinak idatziko dira, elementu hauek kontuan hartuz :

Ipuina nola bukatuko litzateke baldin eta...

- Altxalili harrapariak Laino etxean dagoenean harrapatu izan balu...
- Lainok bere kideak ez laguntzea erabaki izan balu...
- Altxalili guziak libro daudenean, Lainoz berriz trufatzen hasi izan balira...

Ikasle bakoitzak bere bertsioa idatzi ondoren, bakoitzaren aukera bat (hau da, ipuina aldatzeko hiru aukera horietatik bat) irakaslearen mahai gainean utziko da. Asmatu bukaerak, talde ttipietan banatuko dira eta talde bakoitzak haien laburpena egingen du. Bukatzeko, laburpen guziak banatuko dira ikasle guztien artean eta denen artean erabakiko dute zein den bukaerarik etikoena (guzien eskubideak errespetatuz, konponbide egokia bilatzen duena).

7. FITXA : ANTZEZPENA

HELBURUAK :

- Jendeen gaitasunak hobeki ezagutu.
- Enpatia sustatu.
- Sormena bultzatu.

KONPETENTZIAK :

- Jende gaitasunak sustatzeko joko sinbolikoa, dramatizazioa... oinarritzat duten jarduerak burutu.
- Joko kooperatiboa sustatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

Ipuinean agertzen den antzeko egoerak antzeztuko ditugu ikasleekin. Horretako, lehenbizi ikasle eta irakasleak zein egoeratan ematen diren bazterketa kasuak aztertuko dute. Hiru egoera aurkitu dutenean, horiek antzeztera ekinen diote, baztertzailerak, baztertuak eta begira egoten direnak nola sentitzen diren ulertzeko asmoz.

Egoera bakoitzean, ikasleek beren rola aldatuko dute. Egoera batean, ikasle batzuk erasotzailerak izanen dira, beste batzuk baztertuak eta beste zenbait begira egoten direnak. Hurrengo egoera antzeztean, aldiz, jokatzen duten rola aldatuko dute.

Bukatzeko komunean jarriko dugu bizi izana :

Nola sentitzen dira rol bakoitzean ?

Zer estrategia erabiltzen ahal du baztertua denak ?

Zer egiten ahal dute pasiboak edo begira daudenek ?

Zer egiten ahal dugu bertze baten kontrako bortizkeria ikusten dugunean ?

Nola ohartaraziko diegu baztertzailerari beren jokabideaz ?

8. FITXA : ESKER ONEKOAK IZAN

HELBURUAK :

- Dugun guziari ohartu.
- Enpatia sustatu.
- Esker onekoak izaten sustatu.

KONPETENTZIAK :

- Elkarrizketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

Kexatzeko eta gauzak edo bertzeak kritikatzeko joera dugu maiz. Baina zein zorte onekoak garen ohartuko bagina, kexatzeko eta kritikatzeko partez, esker onekoak izaten ikasiko genuke. Gu bizi garen tokian denetatik dugu baina maiz ez gara horretaz ohartzen eta ditugun gauza guziak izateko eskubidea dugula pentsatzen dugu. Baina, munduko bertze herri batean sortu bagina, ez genuke kasik deus izanen... Garaia da, bada, ditugun gauza guzien kontzientzia hartu eta eskertzen hasteko. Ariketa honetan, ikasleek dituzten gauza guzien zerrenda egingen dute (etxea, ohea, jostailuak, janaria, liburua, autoa... alde batetik, eta inguruan dituzten pertsonak : burasoak, haurrideak, lagunak, auzoak...). Ondotik, arbeleko alde batean idatziko dugu ikasle guzien artean aipatzen dituzten gauzen zerrenda. Arbeleko bertze aldean, azpiko mapan zuriz agertzen diren herrialdeetan bizi direnek duten gauzen zerrenda idatziko dugu (aise da, orokorrean zerrenda laburra baita : arropa bakarra, logela bakarra etxeko guzientzat, egunero janari mota eskas bera...).

Ondoko mapan zuriz agertzen diren toki batean sortu bagina, erran nahi baita mundu osoko leku gehienetan (hiru herrietatik bitan), ez genuke izanen ditugun gauza anitz. Ikasleak pentsa dezake ikustatez begiratu behar liokeela bere bizitzari.

